



2010eko apirilaren 13a

HASIEREA BARRIAK BIDAIDE KULTUREA MUSIKEA AGENDA BARRIKETAN BLOGAK BOTAZINOAK JO BEGIZ
 BIZKAIE euskera berbagai euskaldunok munduan pil-pilean begi betegarri estekak sarean antxina-barri jan-edanak

hasiera > barriak > euskera berbagai > Euskeraz egiten diran akatsak aztertu ditue EHU, zuzentzaile automatiko eta euskera ikasteko programetan apliketako

Euskera berbagai

Euskeraz egiten diran akatsak aztertu ditue EHU, zuzentzaile automatiko eta euskera ikasteko programetan apliketako

Euskal Herriko Unibersidadeko Informatika Fakultadeko IXA taldeak urteak daroaz ikerketa-lanetan, euskerearen onurarako litzatekezan sistema (erdi) automatikoak garatzeko. Sistema horreen artean legokez, esaterako, euskerazko akatsen tratamendu automatikoa eta ordenagailuz lagunduta euskera ikastea ahalbidetzen daben bitartekoak. Larraitz Uriak IXA taldeko kideak bi sistema horreek garatzeko zenbait oinarri ezarri ditu EHU, aurkeztu dauen doktore-tesian, euskerazko akats eta desbideratzeen analisirako erispide batzuk finkatuta.



Larraitz Uriak Garin

'Euskerazko erroreen eta desbideratzeen analisirako lan-ingurunea. Determinatzaile-erroreen azterketa eta prozesamendua' izenburukoa da Uriaren doktore-tesia. Akatsak eta desbideratzeak ondo bereizi nahi izan ditu lehenengo eta behin, eta hori da ikerketearen ekarpenetako bat.



Larraitz Uriaren tesia
Pdf dokumentua.
1.82 Mb

Kontuak kontu, akatsak ortografia edo gramatika lako kontuei lotuta dagoz. Desbideratzeak, barriz, gramatikalki zuzenak baina testuinguru jakin batean desegokiak diran berbak dira; erregistroari edo euskalkiari lotuta dagoz. Etorkizuneko sistema automatikoez bi horreek desbardintzea da asmoa, eta bereizketa garrantzitsua da, beraz.

Euskerazko akats eta desbideratzei buruzko adibide eta zehetasunak batzen hasi dira bi datu-basetan, eta horren barri emon dau Uriak bere tesian. IXA taldeak jarri ditu martxan, eta bi aplikazio zehatzetarako egokitu. Euskerearen akatsen tratamendu automatikoa (zuzentzaileak, dialektoen markatzaileak) garatzeko behar dan informazioa batzeko da lehenengoa, eta ordenagailuz lagundutako hizkuntzearen irakaskuntzara eta ikaskuntzako tresnak sortzeko datuak jasoteko bigarrena.

Bi ikerketa-alor horreek buztartzea erabat ezohikoa da, baina Uriak dinoanez, euskerearen akatsen tratamendu automatikorako balio daben datuetako asko erabilgarriak dira ordenagailuz lagundutako hizkuntzearen irakaskuntza eta ikaskuntzarako, eta alderantziz. Horixe da lan horrek aurkezten dauen nobedade eta ekarpen nagusietako bat.

Akatsen detektagailua

Tesiaren beste ekarpenetako bat dagoeneko abian dan corpusa da, datu-basearen oinarria, hain zuzen. Bertatik ataraten dabilz akatsen eta desbideratzeen lehenengo adibideak, horreek atzemoteko gai dan sistema bat garatzeko ezinbestekoak. 113.290 berbako corpusa osotua dago honezkero, hainbat mailatako euskera-ikasleen testuen bildumegaz.

Euskera teknikoko ikasleen eta hiztun arrunten testu batzuk be txertatu dira bilduman. Lehen pausu honegaz, analisiagaz hasteko informazio garrantzitsua finkatu ez eze, corpusa osotzeko erispideak be definitu dira.

Corpusetan dagozan adibideen etiketatzea da hurrengo pausua. Ikerketearen abiapuntu moduan, mugatzaileei lotutako akatsak etiketau dira gehienbat. Euskeraz mugatzaileei jagokenez akatsak egitea ez da oso ohikoa, baina aidi berean egiten danean oso akats larria izaten da. Horregaitik, adibide egokitizat jo dau Uriak lehen proba moduan. Halan da be, gerora akats eta desbideratze guztiak atzemoteko gaitasuna garatzea da asmoa.

Etiketate-prozesurako EtikErro editorea izan dau lagun, IXA taldeak berak sortua. Akatsak etiketateaz gan, etiketautako adibideak datu-baseetara esportatzen ditu, hizkuntza-azterketea egiteko informazio linguistikoa eta guzti.

Hau bai beherapena!

agenda

	Musika - 2011-06-29 21:00etan RON SEXMITH & BAND
	Musika - 2011-06-29 22:30ean Infemuko Hauspoa. KORRONTZI + OINKARI DANTZA TALDEA
	Jaiak - 2011-06-29 Egun osoan San Pedro eguna

irakurriena iruzkinduena

- 1 Txaber Altube: 'txikitatik euki dot bertsotarako zalet... - 403 aldiz
- 2 Euskaltegi homologatuek aurtengo dirulaguntzen barri... - 353 aldiz
- 3 Josean Cabarcos: 'Garagarriaren 4an, Bilbon inoiz egi... - 107 aldiz

bizkaie! facebookeko jarria

Sign Up Create an account or **log in** to see what your friends like.

Bizkaie! on Facebook

Like

Bizkaie!
Gerra Zibila eta memoria historikoa literaturan aztertuko ditue garagarriaren 13an, Donostian

BIZKAIE
www.bizkaie.biz

Gerra Zibila eta memoria historikoa Iberiar Penintsulako literaturan mintegia aurkeztu dabe Eusko Ikaskuntzak eta Etxepare Euskal Institutuak. Erakunde biek alkarlanean atondu dabe ikastaroa, eta garagarriaren 13an egingo da, Donostiako Bakearen Giza Eskubideen Etxean. Mari Jose Olaziregi, Etxepare...

879 people like **Bizkaie!**

Facebook social plugin

bizkaie! sarean

Etiketazioaren ondoren datorren sailkapen-fasean be ekarpen garrantzitsua egin dau ikerketeak. Sailkapenaren egitura nagusia zehaztu dau, batez be mugatzaileei buruzko akatsei jagoken kategoria landuz. Aurreko fase horreek beteta ekin jako bi datu-baseak osotzeari. Adibide eta informazio linguistiko bera gordeten dabe biek, baina desbardintasunak be baditue. Euskerazko akatsen tratamendu automatikorako datu-baseak informazio teknikoak be badauka. Ordenagailuz lagundutako hizkuntza-irakaskuntza eta ikaskuntzeari jagokonak, bestalde, informazio psikolinguistikoak biltegitratzen dua.

Tratamendu automatikoa

Uriak, IXA taldeagaz batera, eginak ditu lehen probak, bitarteko horreek erabilia akatsen tratamendu automatikoak emoten dituan emoitzei jagokenez. Mugatzaileak egindako akatsetarako bereziki egokitutako teknika eta erregela-multzoa erabilia, tratamenduaren doitasuna neurtu dau, hau da, programa informatiko baten bidez tratamendua zenbateraino dan eraginkorra ikusi dau.

Doitasuna % 45,5ekoa besterik ez zan izan hasieran. Halan da be, etiketau bako beste akatsak aurrez kenduta, 'zarata' desagertu egin zan, eta doitasuna % 80ra igon zan. Horrenbestez, finkatutako erispideek eraginkor izateko zantzuak erakutsi ditue. Corpora handituta, eraginkortasuna handiagoa izango dala uste dau Uriak.

Larraitz Uriá Garin (Hernani, 1977) Ingeles Filologian eta Lehen Hezkuntzako irakasle-ikasketetan lizentziatua da. Igone Zabala Unzalu Euskal Filologia Saileko irakaslearen eta Montse Maritxalar Anglada Informatika Fakultateko irakaslearen zuzendaritzapean egin dau tesia. Gaur egun, ikertzailea da EHUko IXA taldean eta Baionako Unibersidadeko IKER taldean.

Bizkaie1

Iruzkinak 0

Inprimidu Bialdu lagun bati Zabaldu

Zure iruzkina

* Markatuta dagoenak bete beharrekoak

dira

Izena *

E-Posta *

symmetry, otelys

Idatzi laukian alboko letrak *



E-posta helbidea ez da publikatuko.
Konfirmazioetarako bakarrik erabiliko da.
Bizkaie! egiten dogunon partez, eskerrik asko mendebaldeko euskalkian idatzitako Sareko aldizkari bakarra irakurteagaitik.



blogak



Mundua konpondu guran...
Iñaki Atxutegi
Lagatzuren jaia

Iruzkinak 1



Ardi txikia beti bildots
Miren Ibarluzea
Koplak sanjuanetan

Iruzkinik ez



Izioqui dugu...
Erramun Osa
Agurra

Iruzkinak 1

hemeroteka

Bizkaie! Egunez egun, 9 urte, 3369 egun

Aukeratu urtea

◀ Apirila, 2010 ▶

Urtea	A	M	E	B	Z	D
Aukeratu hilabetea			1	2	3	4
Hilabetea	5	6	7	8	9	10
	11	12	13	14	15	16
	17	18	19	20	21	22
	23	24	25	26	27	28
	29	30				

Estekak • Nor garan • Harpidegun egin • Web mapea • Bizkaie! 2002-2009 • Legezko oharra eta pribatasuna • RSS Sindikazinoa

Babesleak:



bbk



Sariak:



elcorreo.com premios010sariak

bizkaiera.net